



1-10 / 04 / 2011

DANTZAZ BLAI

Luhuso-Donostia

IV. Gazte
Baleten Topaketak
IV Encuentros
de Junior Ballets
IV Rencontres
de Ballets Juniors

Verve
(England)
Le Marchepied
(Suisse)
Dantzaz Konpainia
(Gipuzkoa)

Photo: J. J. J. J. J.

Elkar enbataren artean / Dantza kulturaren / Dantza kulturaren

Elkar enbataren artean / Dantza kulturaren / Dantza kulturaren



DANTZAZ BLAI

IV. Gazte Balleten Topaketak
2011 / 04 / 1-10

Luhuso-Donostia

Verve (England)
Le Marchepied (Suisse)
Dantzaz konpainia (Gipuzkoa)

2

Mugaren alde bietan kokatutako bazkideok baterako lanean sakontzea erabaki dugu, Euskal Herrian dantzaren garapena sustatzeko, eta bereziki profesional gazteei laguntzeko esperientzia pilotu baten bitartez.

Aurreko urteetako esperientzien ostean, edizio berri honetan aberastuta finkatzen da proiektua, hala edukiari, nola lurraldetasunari dagokionez.

Urterik urte pixka bat gehiago eraikitzen ari garen Gazte Balleten europar sareak babestutako Gipuzkoa eta Iparralderako “ekintza pilotua” da.

Hiru helburu nagusi ditu T.DANZ 2010 proiektuak:

- ❖ Ikuslegoaren sentsibilizazioa lortzea dantza eta koreografia sorkuntzaren inguruan
 - ❖ Dantzari gazteen profesionalizatzea sustatzea
 - ❖ Kultura-ekitaldiak ahalbidetzea nazioarte mailan

Hartu-emanen astea: *lantegiak / performance*

◆ Lantegia

Dantzaz Blai topaketei ezker dantzari profesional gazteek hobetu eta aberastu ahal dute, nazioartean izena handia duten artista eta irakasleekiko harremanarekin.

Edizio honetan, ospe handiko bi irakaslek irakatsitako teknika ezberdinak esperimentatu ahal izango dituzte.

Aste batean zehar, 3 konpainietako dantzariak teknika klasikoa landuko dute Lucia Geppirekin eta Ultima Vez/Wim Vandekeybus (Belgika) konpainiaren hiztegi fisiko eta koreografikoan oinarritutako eta Jorge Jaureguik emandako workshop bat izango dute.

- **Lucia Geppi** (Italia): Cristina Bozzolini eta Lilia Bertelliren eskolan ikasi, eta Maicha Van Hoecke-k zuzendutako "L'ensemble" konpainian garatu zuen bere karrera. 1998. urtetik ballet-irakaslea eta koreografiako laguntzailea da Aterballeto konpainian, Mauro Bigonzetti zuzendaritzapean. 2005 .urteaz geroztik, hainbat ballet-konpainiatako ballet-irakasle gonbidatua da, eta tartean, Genoako Operako Ballet, Stuttgart Ballet eta Montecarloko Balletetan.
- **Jorge Jauregi** (Bilbo): Gasteizko Moaré eta Ikutu taldeetan hasi zen dantzatzen, eta Eusko Jaurlaritzako "Euskal Koreografo Berriak" Plataforman esku hartuz. Damián Muñoz Danza konpainiaren hainbat ekoizpen-lanetan parte hartu eta 2004. urteaz geroztik Ultima Vez/Wim Vandekeybus konpainiako kide izan zen. Gaur egun Luara Arisen proiektu ezberdinetan kolaboratzen du.

◆ Estola emanaldia

Apirilak 1, ostirala
14.30, Harri Xuri – Luhuso
Dantzaz Konpainia

◆ Performance

Dantzaren inguruan sentikortu eta dantza bera hurbiltzeko ildoari jarraiki, edizion honetan Jorge Jauregik emandako workshop-eko erakustaldia aurkeztuko da.

Apirilak 8, ostirala
18.00, Bulebarreko Kioskoko zabaldegia
Dantzaz Konpainia/Verve/Le Marchepied

Gazte Balletak

◆ VERVE

Leeds, England

Balletako Zuzendaria: Gurmit Hukam

4

Konpainiak dantzako obra berritzaileen programa anitza eskaintzen du, nazioarteko koreografo gailenek bereziki sortutakoak izanik. Kontzeptu eta estilo koreografikoen aniztasun horrek era guztietako ikusleak erakartzeaz gain harrিতuta utziko ditu dantzariei darien aparteko energia eta kemenagatik. Erresuma Batuetako kontserbatorio nagusienetakoa den Northern School of Contemporary Dance-ko graduondoko interpretazio konpainia saritua da Verve.

Europako kontserbatorio entzutetsuetako batzuetan prestakuntza tekniko sakona jaso izan duten dantzariek osatzen dute Verve eta oso ezagun egin da grina handiko haien interpretazio erakargarriengatik. Konpainiak nazioarteko koreografo handien bizitasun handiko lana aurkeztuko du, Erresuma Batuetako dantza konpainia nabarmenetako batzuekin lan egingo duten dantzariek interpretatua.

“Konpainia bikain honek aldi honetarako bereziki enkargatu izan diren lau obra interpretatu ditu, 11 graduatuen talentu handia ezagutzera emanaz”.

Jonathan Gray

Dancing Times (2009ko ekaina)

EGITARAU

“Unspoken” *Debora Johnson*

“Cascade” *Charles Linehan*

“Dual Formula” *Peter Mika*

“Forces” *Ben Wright*



◆ Le Marchepied Lausanne – Suisse

Zuzendari artistikoak: Corinne Rochet, Nicholas Pettit

Dantzariak: Iris Barbey, Camille Cochet, Lucas Gianola, Anne-Marie Kaufman, Valérie Léchet, Yasmine Nassouh, Noémie Robert, Raphaëlle Savina, Luisa Schoefer.

6

Corinne Rochet eta Nicholas Pettit koreografo eta pedagogoek Le MARCHEPIED sortu zuten 2001ean. Egitura horren helburua zen dantza garaikidea ofizio bihurtu nahi zuten dantzari gazteak sorkuntza koreografikoaren bidez bultzatzea.

Taldean lan egiten dute, eta dantzari bakoitzak sorkuntza koreografiko bat gorpuzteko behar diren ardatz desberdinetan parte hartzen du: gaiak xerkatu, idazketa koreografikoa egin, musika xerkatu, argiztapena kontzeptualizatu, jantziak xerkatu, flyer-ak eta afixak sortu...

2007an, Corinne Rochetek eta Nicholas Pettitek Vaudoise Fundazioak esleitzen duen kultura-sustapenaren Prix de L'Éveil irabazi zuten. Sari horrek, jendeari, ikasleei zein hasiberriei sorkuntza-bideak erakutsiz, Vaud Kantoiko bizi artistikoa aberastu duten pertsonak saritzen ditu.



EGITARRAUA

« Close the Loop »: 2010eko Sorkuntza

Koreografia **Nicholas Pettitek** eta **Corinne Rochetek** gainbegiratuta
Dantzariak: **Iris Barbey, Auréliane Bottero, Turi Colque, Maroussia Ehrnrooth, Rachel Keizer, Claudia Manes, Marie Saudan, Luisa Schoefer, Noémie Robert**
Argiztapena: **Guillaume Gex**
Jantziak: **Cécile Delanoé**
Musika: **Nicholas Pettit**.

Laguntzaileak: Ville de Lausanne, Canton de Vaud, Loterie Romande, Pour-cent culturel Migros eta Ernst Göhner Stiftung.

MARCHEPIEDen 2010eko sorkuntza honen helburua beldurra sartzearen ondorioz sortutako arazoez haurrak, nerabeak edo helduak jabetzea da.

“**Beldurra sartzea** hartu dugu **gaitzat**, iruditzen baitzaigu gaurkotasun handiko arazoa dela. Egunero, ikastetxe guztietan, haurrei, nerabeei beldurra sartzen diete beste haur eta nerabe batzuek. Gertaera horiek gure egunerokotasuna betetzen dute, eta galderak pizten”.

« Jouer à Super Cluster »: 2011eko Sorkuntza

Koreografia **Nicholas Pettitek** eta **Corinne Rochetek** gainbegiratuta
Dantzariak: **Iris Barbey, Camille Cochet, Lucas Gianola, Anne-Marie Kaufman, Valérie Léchet, Yasmine Nassouh, Noémie Robert, Raphaëlle Savina, Luisa Schoefer**
Argiztapena: **Guillaume Gex**
Jantziak: **Cécile Delanoé**
Musika: **Nicholas Pettit**.

Laguntzaileak: Ville de Lausanne, Canton de Vaud, Loterie Romande, Pour-cent culturel Migros, Coopérative Migros Vaud, Schweizerische Interpretienstiftung (SIS).

“FRAGMENTAZIOAREN gaian oinarrituta eraikitako koreografia-lana da, fragmentazioa aglomerazioaren mekanismotzat hartuta eta ondorengo argudioa galdetzen duena: *nola birdefinitu denboraren eta espazioaren gure pertzepzioa, hainbat egoera testuinguru berri batera lekualdatuz. Unibertso apetatsua sortu nahi dugu, zeinetan koreografia-konposizioaren kodeak nahastuta egon baitaitezke*”.

◆ Dantzaz konpainia

Donostia (Gipuzkoa)

Dirección artística: Adriana Pous



Euskal Herriko dantzaren arloan izandako azken agerkundea da. Bere estilo propioa finkatu du Itzik Galili, Eric Gauthier, Hilde Köch, edo Jone San Martin artista europar ospetsuen parte-hartzeari esker.

DANTZAZek eszena-eskarmentua sendotzeko plataforma eskaintzen die konpainia profesionaletan sartu nahi duten **10 dantzari gazteei**. Xede horren errealitatea Euskal Herrian eta bertatik kanpo emaniko ikusgarrietan gauzatzen da. Azken hiru urteotan, 30.000 ikusle baino gehiago hartu ditugu Euskadi, Nafarroa, Iparralde, Biarno, Frantzia, Espainia, Alemania eta Txekian emandako 90 bat emanalditan.

Dantzari bakoitzaren sorkuntzek ere bere lekua dute, Donostiako Victoria Eugenia Antzokiko “DANTZAKLUB” ekitaldiei esker: workshop modukoak, beren koreografiak egin ditzaten.

Bere taldekideen kalitate-maila altua bermatzearen, DANTZAZek urtero hautatzen ditu bere dantzariak, Europa osoko artisten partaidetza ohi duen audizio arrakastatsu batean. 2010-2011 denboraldirako Euskal Herria, Katalunia, Belgika, Espainia, Frantzia, Ingalaterra, Portugal, Suitza eta Italiatik etorritako 150 hautagai zeuden.

Egun, DANTZAZeko dantzari-ohi askok Europako dantza konpainia ospetsuenetan dihardute lanean, honakoak besteak beste: Ballet Preljocaj-Pavillon Noir, Ballet de Lorraine, Gauthier Dance, NorrDans, Nurembergeko Baleta, Scottish Ballet, Ballet d'Europe, Malandain Ballet Biarritz...

EGITARAUA

« Mintzo » (laburpenak)

Sophie Antoine, Hilde Koch, Jone San Martín

“MINTZO”k mintzaireri, komunikazioari eta inkomunikazioari, hizkuntzak baino hobe adierazten duen gorputzari, zalantzei eta goganbeharrei erreparatzen die: guri, gizakioi buruz mintzatzen da. “MINTZO” gizabanakoen arteko ulermenaren, mestizaiaren eta tolerantziaren poema bat da.

Ikuskizun honetan, DANTZAZ konpainiak agertzen ari diren koreografoen aldeko apustua egin du:

* Sophie ANTOINE, bi denboralditan DANTZAZ konpainiako dantzari izan da eta, egun, Nürembergeko Balletean dabil. Bada, “Dis-Connected” proposatuko digu, dantzari gazteen arteko lehenengo topaketari buruzko kontakizun bat.

* Frankfurteko Balleteko dantzari bikain eta Duatoren laguntzaile izandako **Hilde KOCH**en proposamen berriarekin atsegin hartuko dugu: Dantzaz konpainiarako sortutako “Smoke Rings”, Laurie Anderson poeta, marrazkigile eta artista esperimentalaren musika-konplizitateaz.

* Dantza garaikideko izar donostiar eta William Forsytheren dantzari, **Jone SAN MARTINEK** “Gorputitz” sortu du bereziki DANTZAZ Konpainiarentzat Mozarten musika ahaztezina baliatuz.



Emanaldiak

Luhuso – Harri Xuri 21.00

◆ Larunbata, apirilak 2

Verve

Le Marchepied

Dantzaz Konpainia

10

Donostia – Gazteszena 19.00

◆ Larunbata, apirilak 9

Verve

Balleteko Zuzendaria: Gurmit Hukam

◆ Igandea, apirilak 20

Le Marchepied

Zuzendari artistikoak: Corinne Rochet, Nicholas Pettit

Argibideak

Salmenta tokiak:

HARRI XURI:

Telf. +33 (0) 559 55 58 43

harrixuri@yahoo.fr

DONOSTIA:

Servikutxa / Tele kutxa 943 001 200 / Kutxanet

Leihatilak/Taquillas:

Antzoki Zaharra 943 481970

Victoria Eugenia Antzokia 943 4818018

Gazteszena (Egia K.E.) 943 291514

11

Elkar-antolamendua:



donostiakultura.com
San Sebastián, ciudad de la cultura

Sustengua :

